EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

SEGURTASUN SAILEKO BERDINTASUNERAKO PLANA

			Bateragarritasuna VII. Planarekin												
			GOBERNU ONA					1. ARDATZA		2. ARDATZA			3. ARDATZA		
HELBURUA	EKINTZA	ARDURADUNA	P.1	P.2	P.3	P.4	p.5	P.1	P.2	P.3	P.4	P.5	P.6	P.7	P.8
1.Ertzaintzan dauden emakumeen kopurua handitzea	1.1.Parte hartzen den publizitate-kanpaina eta ekitaldi publiko guztietan emakumeek arlo polizialean egiten duten lana agerian jartzea	Komunikazio Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	1.2.Gazteen artean lana sustatzeko guneetan parte hartzea (Gazteen Enplegu Feria Prestik, Lanbide, prestakuntza-zentroak) emakumeei Ertzaintzaren lanaren irudi erakargarri bat erakusteko	Komunikazio Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	1.3. Emakumeek erabaki-guneetan eta Ertzaintzaren Zuzendaritzan daukaten presentzia eta eragina sustatzea (lidergoari buruzko ikastaroetan egotea, mailaz igotzeko ikastaroetan emakume gutxi egotearen arrazoia aztertzea)	Ertzaintzaren Zuzendaritza Giza Baliabideen Zuzendaritza PLEA													
	1.4.Emakume ertzainen ekarpena aintzatesteko, hiru urtean behin egingo den sari bat ezartzea	Kabineteko Zuzendaritza Komunikazio Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	1.5. Euskal Poliziaren Legearen 5. aldaketaren onarpena sustatzea. Legebiltzarrean tramitatzen dabil	Kabineteko Zuzendaritza													

2.Berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloko sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzea	2.1. Langile guztiek (funtzionarioak, lan-itunpekoak eta politikariak) IVAPek antolatzen dituen berdintasunari buruzko ikastaroetan (oinarrizkoak zein bestelakoak, esaterako, komunikazioa, inpaktuari buruzko txostenak, aurrekontuak, kontziliazioa) parte har dezatela bultzatzea	Zuzendaritza guztiak PLEA													
	2.2. Berdintasunaren arloko ikastaro bereziak sustatzea (Saileko berdintasun politikak, jarduera arloei buruzko oinarrizko ikastaroa, Gizonduz, hizkera ez-sexista, etab.)	AJZHP Zuzendaritza Giza Baliabideen Zuzendaritza Kudeaketa Ekonomikoa Zuzendaritza Informatika eta telekom Zuzendaritza Segurtasunerako Koordinazio Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza PLEA													
	2.3. Online bidezko berdintasunari buruzko prestakuntza bultzatzea	Giza Baliabideen Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	2.4. Genero-ikuspegia daukaten aurrekontuei buruzko eta kontratuetan berdintasun-klausulak txertatzeari buruzko prestakuntza sustatzea	Kudeaketa Ekonomikoa Zuzendaritza													
	2.5. Lanpostu-eskaintza eta –promozio guztietan berdintasunari buruzko ikastaroak meritu gisa hartzea	Zuzendaritza guztiak PLEA													
	2.6. Egiten diren prestakuntza- edo dibulgazio-ekitaldietan (Larrialdiak Koordinatzeko Zentrora bisitak, Trafikoko tailerrak, Ertzaintzaren tailerrak ikastetxe eta elkarteetan, etab.) genero-ikuspegia txertatzea	Larrialdi eta Meteorologia Z. Ertzaintzaren Zuzendaritza Trafiko Zuzendaritza													
	2.7. Langile guztiek feminismoari eta berdintasunari buruz eztabaidatzeko eta parte hartzeko foroak sortzea, indartzea eta elikatzea (intranetetan, postontzi funtzionalak, sharepointak, esparru informalak, etab.)	AJZHP Zuzendaritza Giza Baliabideen Zuzendaritza Kudeaketa Ekonomikoa Zuzendaritza Informatika eta telekom Zuzendaritza Segurtasunerako Koordinazio Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza PLEA													

3.Komunikazioan eta antolatzen diren ekitaldietan genero-ikuspegia txertatzea	3.1. Dokumentuak, barruko arauak eta argitalpenak berrikustea eta hizkera ez-sexista erabiliz eta genero-ikuspegitik idatzita egon daitezela eskatzea (EHAAko argitalpenak, sharepointak, Gurenet, webguneak, sare sozialak)	Zuzendaritza guztiak PLEA													
	3.2. Baliabide propioak sortzea eta beste batzuk ere zabaltzea, sortzen den informazioak eduki sexistarik izan ez dezan	Komunikazio Zuzendaritza AJZHP Zuzendaritza Giza Baliabideen Zuzendaritza Kudeaketa Ekonomikoa Zuzendaritza Informatika eta telekom Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	3.3. Berdintasunean adituak diren GTDko eta berdintasunerako lan-taldeetako langileen aholkularitza eskatzea, saileko komunikazioetarako, larrialdien eta polizia-lanaren arloan emakumeen bisibilizazioa bermatzeko	Komunikazio Zuzendaritza AJZHP Zuzendaritza Giza Baliabideen Zuzendaritza Larrialdi eta Meteorologia Z. Ertzaintzaren Zuzendaritza PLEA													
	3.4. Sailaren berdintasun-arloko jardueren berri ematea barruan zein kanpoan (sharepoint, Gurenet, langilearen ataria, webguneak, berdintasunari buruzko foroak eta atalak)	Zuzendaritza guztiak PLEA													
	3.5. Genero-ikuspegia, Sailaren jarduera-esparruetan emakumeek egiten duten lanaren bisibilizazioa eta feminismoa txertatzea antolatzen diren ekitaldi publikoetan	Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza Trafiko Zuzendaritza Larrialdi eta Meteorologia Z. Ertzaintzaren Zuzendaritza PLEA													
	3.6.Emakumeek eta gizonek joko-sektorean izaten duten tratamendua eta presentzia aztertzeko jardunaldi bat antolatzea	Komunikazio Zuzendaritza Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza													

4.Zuzendaritzetan berdintasun-foroak indartzea edota sortzea eta GTDren eta haren kideen lana aitortzea	4.1. GTDko ordezkariek beren Zuzendaritzetan eta PLEAn daukaten posizioa hobetzea eta egiten duten lana aintzatestea, aditu gisa eman dezaketen aholkularitza eskatuz	Zuzendaritza guztiak PLEA													
	4.2.GTDko ordezkarien lana aintzatesteari begira, ordezkaritza-lanak eta zuzendaritzetan berdintasunerako neurriak ezartzeko lanak egiteko zenbat ordu behar diren kalkulatzea, PLEAren I. Berdintasunerako planeko eredua oinarri hartuta	Zuzendaritza guztiak PLEA													
	4.3. Ertzaintzaren, PLEAren eta Udaltzaingoen berdintasunerako taldeetako dinamikak indartzea, eta horretarako, talde horietako kideen baldintzak hobetzea eta egiten duten lana aintzatestea	Segurtasunerako Koordinazio Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza PLEA													
	4.4 Erandioko Berdintasunerako Sarea finkatzea, GTDrekin koordinatuta, eta Koordinazio Zuzendaritza ere sar dadin sustatzea	Giza Baliabideen Zuzendaritza Kudeaketa Ekonomikoa Zuzendaritza Informatika eta telekom Zuzendaritza Segurtasunerako Koordinazio Zuzendaritza													
5.Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren I. Berdintasun Plana ezartzea	5.1.PLEAko langile guztiei berdintasunari buruzko sentsibilizazio-tailerrak ematea	AJZHP Zuzendaritza PLEA													
	5.2. Berdin-berdinak-ek, PLEAko Berdintasunerako lan-taldeak, kudeatutako I. Berdintasunerako Plana ezartzea	PLEA													
6.Berdintasun–politiken arloko prestakuntza eta horiek garatzeko aurrekontu-partidak gordetzea	6.1.Berdintasunerako Administrazio-Unitateari atxikita, berdintasun-politikak garatzeko aurrekontu-partida bat gordetzea	AJZHP Zuzendaritza													
	6.2. Zuzendaritzetan berdintasun-politikak garatzeko aurrekontu-partidak gordetzea	Zuzendaritza guztiak PLEA													

7.Estatistika guztietan sexu-aldagaia ager dadin sustatzea eta modu desagregatuan ustia daitezela, eta azterlanetan genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzea	7.1.Inprimaki, datu-bilketa, gogobetetze-inkesta, kalitateari buruzko inkesta eta estatistika guztiek sexuaren aldagaia modu sistematikoan jasotzen dutela zaintzea eta bultzatzea	AJZHP Zuzendaritza Giza Baliabideen Zuzendaritza Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza Trafiko Zuzendaritza Larrialdi eta Meteorologia Z. Segurtasunerako Koordinazio Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	7.2. Inprimaki eta erregistroetan, genero-aldagaien artean "besterik" aukera ere jartzea	Giza Baliabideen Zuzendaritza Kudeaketa Ekonomikoa Zuzendaritza Informatika eta telekom Zuzendaritza Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza													
	7.3. Adierazle berriak aztertzea, emakumeen eta gizonen baloreen, rolen, egoeren eta beharren arteko desberdintasunak zein diskriminazio anitzeko egoerak sorrarazten dituzten beste faltore batzuk hobeto ezagutzeko aukera emango dutenak	Segurtasunerako Koordinazio Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	7.4.Arau-hauste penalekin lotutako pertsonei buruzko datu desagregatuen bilketa eta tratamendua finkatzea (atxilotutakoak, ikertutakoak, biktimak), barruan zein kanpoan zabaltzeko	Segurtasunerako Koordinazio Zuzendaritza													
	7.5. B eta C motako makinei buruz, genero-ikuspegia daukaten azterketa-dokumentuak egitea	Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza													
	7.6.Emakumeen presentzia daukaten joko-enpresa operadoreei buruzko datuak ustiatzea	Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza													
	7.7.Udaltzaingoetako hautaketa-prozesuetara aurkeztu diren pertsonen eta lortutako emaitzen inguruko datu desagregatuak ezagutzea eta aztertzea	Segurtasunerako Koordinazio Zuzendaritza													

8.Aurretik genero-inpaktuaren gaineko ebaluaketa eginda daukaten arauen kopurua handitzea eta Emakunderen gomendioak txerta daitezela sustatzea	8.1.Inpaktu-txostenak egiteari buruzko prestakuntza eta arauetan berdintasuna sustatzen duten klausulak sartzeko moduari buruzko prestakuntza ematea horretaz arduratzen diren langileei	AJZHP Zuzendaritza PLEA													
	8.2. Inpaktu-ebaluazioetan GTDko berdintasunean adituak diren langileen aholkularitza sustatzea (datuak emateko, neurri positiboak sartzeko edota genero-ikuspegia txertatzeko)	Zuzendaritza guztiak PLEA													
	8.3.Emakunderen egiaztatze-txostenetan jasotako hobekuntza-aholkuak sartzeko neurriak aztertzea eta proposatzea; eta jarraipena egitea	AJZHP Zuzendaritza													
9.Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeari dagokionean, Zuzendaritza guztien hausnarketa, prestakuntza eta inplikazioa sustatzea	9.1.Saileko aurrekontu-programa guztietan P19-GEN inprimakia betetzea, eta horretarako, Berdintasunerako Unitatearen eta GTDko ordezkarien aholkularitza izatea	Zuzendaritza guztiak PLEA													

10.Berdintasuneko adituen laguntzarekin, plan sektorialetan genero-ikuspegia txertatzea	10.1.Erakundearen diskurtsoan (Ertzaintzaren misioa, bisioa eta baloreak) berdintasunarekiko konpromisoa txertatzea	Ertzaintzaren Zuzendaritza												
	10.2.Plan sektorialetan berdintasunerako irizpideak sartzea eta Ertzaintzaren Berdintasun-taldeko langileen laguntza sustatzea	Ertzaintzaren Zuzendaritza												
11.Prestakuntza eta inplikazioa sustatzea, kontratu eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak txerta daitezen	11.1.Kontratuetako eta hitzarmenetako baldintza teknikoak prestatzen dituzten langileei berdintasuna sustatzeko baldintzak sartzeko moduari buruzko prestakuntza ematea	AJZHP Zuzendaritza Kudeaketa Ekonomikoa Zuzendaritza												
	11.2.Berdintasun-baldintzak txertatuta dituzten kontratuen eta hitzarmenen portzentajea handitzea	AJZHP Zuzendaritza Kudeaketa Ekonomikoa Zuzendaritza												

12.Berdintasunaren arloko koordinazioa indartzea	12.1.Udaltzaingoen Berdintasunerako lan-taldea finkatzea, koordinazioan lan egiteko eta Ertzaintzaren Berdintasunerako lan-taldearekin lankidetzan jarraitzeko	Segurtasunerako Koordinazio Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	12.2.Polizian emakumeen parte hartzea eta garapena sustatzen duten erakundeen bilera, proiektu eta prestakuntzetan parte hartu, Estatu mailan zein Europan edo nazioarte mailan	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	12.3.Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea berdintasuna lortzeko berme gisa	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
13.Zaintzak aitortzea eta gizon eta emakumeen artean modu ekitatiboan banatzeko aukera ematea	13.1.Gizon eta emakumeek kontziliazio-neurriak hartzeko hautematen duten zailtasun-maila murriztea	Giza Baliabideen Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	13.2.Familia eta lan eremuak uztartzeko, kontziliazio erantzukidearen neurriak handitzearen beharra aztertzea, bereziki, Ertzaintzan	Giza Baliabideen Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	13.3. Kontziliazio erantzukideko neurriak hartzen dituzten gizonen kopurua handitzea	Giza Baliabideen Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	13.4.Emakume eta gizon ertzainen pentsioen arteko arrakala ekonomikoa murriztea	Giza Baliabideen Zuzendaritza													

14.Ertzaintzako langileek emakumeen aurkako indarkeriari buruz daukaten informazioa, prestakuntza eta ikerketa hobetzea	14.1.Emakumeen aurkako indarkeria salatzeko, horren inguruko prestakuntza jasotzeko eta sentsibilizazioa lantzeko jarduerak egiten jarraitzea (adibidez, emakumeen aurkako indarkeria forma desberdinak ikusarazteko, mikroindarkeriak, grroming, nesken genitalen mutilazioa, giza salerosketa sexu-esplotaziorako, etab.)	Ertzaintzaren Zuzendaritza PLEA													
	14.2.Emakumeen aurkako indarkeria arbuiatzeko eta bizirik atera direnei errespetua adierazteko ekintza publikoen kopurua handitzea, eta horiei entzutea egia zabaltzeko eta gizarteak pertsona horiek bizi izandakoa aintzatesteko, eta bide batez birbiktimizazioa ekiditeko	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	14.3.Emakumeen aurkako indarkeriari eta haren adierazpen-moduei buruzko hainbat prestakuntza-jardueratan (jabetuz) Ertzaintzako agenteen parte hartzea bultzatzea (EI/GIn dedikazio esklusiboa daukaten langileena bereziki)	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	14.4.Genero indarkeriari eta horren antzeko arloei buruz Ertzaintzak herritarrei, ikastetxeetan eta talde profesionalei ematen dizkien hitzaldiak ematen jarraitzea	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	14.5.Beste estamentu batzuekiko lankidetzak indartu eta jarraitzea (Unibertsitateak, Estatu-idazkaritzako Ikerketa-Kabinetea, Genero Indarkeriaren Behatokia, etab.)	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	14.6.EHUrekin edo Kriminologiaren Euskal Institutuarekin batera azterlanak egin daitezela edo praktiketako ikasleek egin ditzatela bultzatzea	AJZHP Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	14.7.Ertzaintzako langileen lan-arloan, jazarpen moralari, jazarpen sexualari, sexistari, edo sexuan, sexu-orientazioan edo sexu-identitatean, erlijio-sinesmenetan edo arrazan oinarritutako jazarpenari buruzko Agindu berria zabaltzea	Giza Baliabideen Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													

15.Bizirik atera diren biktimei arreta osoa eta babesa bermatzea	15.1. Informazioa biltzeko sistemak aztertzen eta Ertzaintzan horiek homogeneizatzen jarraitzea, esku-hartze publikoa hobetzeari begira datu eguneratuak izateko	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	15.2. Indarkeriaren biktimak izanda, bizirik atera diren pertsonen babesa, eta, hala badagokio, haien kargu dauden pertsonena ere bermatzea, arreta integraleko prozesuaren fase guztietan zehar	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	15.3.Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, Ertzaintzak prebentziorako eta arretarako dituen protokolo eta prozedurak berrikustea	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	15.4.Tratu txarrak jasan dituzten emakume guztiei dituzten eskubideen berri eta eskura dituzten gizarteko baliabideen berri ematen jarraitzea.	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	15.5.Tratu txarrak jasan dituztelako, Ertzaintzak artatu dituen emakumeei buruzko jarraipen-txostenak egiten jarraitzea.	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	15.6.Zerbitzua dela eta, emakumeek daukaten gogobetetze-maila ebaluatzen jarraitzea eta hobekuntza-proposamenak jasotzea, aplikagarriak diren aztertzeko.	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	15.7.Indarkeriaren biktima diren emakumeak babesteko baliabideak etengabe berrikusten jarraitzea: bortxa, eskolta, errutinekin eta eremuekin lotutako prebentzio-jarduerak, kontrazaintza, etab.)	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	15.8. Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko gutxienezko estandarrei buruzko mundu-hitzarmen bat ezartzeari jarraipena egitea	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	15.9.Sexu-esplotaziorako giza salerosketari dagokionean, Ertzaintzaren Plan Estrategikoa ezartzen eta hobetzen jarraitzea	Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	15.10. Genero-indarkeriaren biktima diren emakume ertzainei arreta emateko berariazko neurriak ezartzeko beharraren inguruan hausnartzea	Giza Baliabideen Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													

16.Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, erakundeen arteko esku hartze koordinatua sustatzea	16.1.Beste polizia-kidego batzuekiko koordinazioa lantzen eta informazio-trukea arintzeko lan egiten jarraitzea	Segurtasunerako Koordinazio Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													
	16.2.EAEk emakumeen aurkako indarkeriaren arloan daukan araudia errealitate horri modu integralean aurre egiteak sortzen dituen erronka berriekin lerrokatzea (esaterako, Genero-indarkeriaren aurkako Estatu-ituna, EAEk berretsi duena)	Kabineteko Zuzendaritza AJZHP Zuzendaritza													
	16.3.Emakumeen aurkako indarkeria kasuak prebenitzeko eta horiei arreta emateko egingo diren eta gaur egun dauden udal zein udalez gaindiko protokoloetan parte hartzea	Segurtasunerako Koordinazio Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza													